

ALEGIAKO

I. IPUIN LEHIAKETA

Alegiako liburutegiak Alegiako I. ipuin lehiaketarako deialdia egin du. Lehiaketa honetan, proposatu den ilustrazioa kontuan izanik, ipuin bat osatu beharko da. Hona hemen parte hartzeko oinarriak:

- ✧ Lehiaketan parte hartzeko Alegiako herritarra, edo Alegiako eskolako ikaslea izan behar da.
- ✧ Aurrez sarituak edo argitaratuak izan ez diren lanak aurkeztu behar dira.
- ✧ Gaia librea den arren, aurkeztu beharreko lanek proposatu den irudia izango dute oinarri edo inspirazio iturri.
- ✧ Aurkezten diren lanek egile bakarra izan behar dute eta euskaraz aurkeztuko dira. Egile bakoitzak nahi izanez gero, bi lan aurkeztu ditzake.
- ✧ Hiru kategoria egongo dira:
 - A KATEGORIA: LH 4-5-6
 - B KATEGORIA: DBH 1-2
 - D KATEGORIA: DBH 3-4
- ✧ Lanen luzerak:
 - A kategoria: 75 hitz baino gutxiago.
 - B kategoria: 100 hitz baino gutxiago.
 - D kategoria: 150 hitz baino gutxiago.
- ✧ LANAK ENTREGATZEKO BIDEAK ETA MODUAK:
 - Lanak AZAROAK 29 baino lehen utzi beharko dira liburutegian edo kultur etxean.
 - Lanak ordenagailuz idatziak entregatuko dira.
 - Lanek ez dute sinadurarik eman behar.
 - Gutun azal itxian bi dokumentu sartu beharko dira: aurkezten den ipuina orri batean, eta bestean, egilearen datuak (izen abizenak, helbidea, telefonoa, adina, aurkezten den kategoria).
 - Gutun azalean *Alegiako I. ipuin lehiaketa* jarriko da eta baita zein *kategoriakoa* den ere (A, B edo D kategoria).
- ✧ Sariak:
 - Kategoria bakoitzeko lehenengo eta bigarrenarentzat opari-txekeak.
 - Sariak abenduaren 20an banatuko dira.



Alegiako I. ipuin lehiaketan parte hartzeko ilustrazioa hau erabili oinarri edo inspirazio iturri.